## C2. AURREKONTUEI BURUZKO GARDENTASUNEKO ETA KONTU EMATEKO TRESNA

## HASIERA- ETA AMAIERA-DATA: 2021eko iraila - 2024ko abendua

## NORK HARTUKO DU PARTE GARAPENEAN?

### ZER ADMINISTRAZIO DA BURU?

| Erakundearen izena | Saila edo zuzendaritza | Harremanetarako pertsonaren izena | Kargua | Helbide elektronikoa | Zer rol betetzen du garapenean? |
|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Gobernantza departamentua | Haritz Ugarte Aizpuru | Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzuburua | hugarte@gipuzkoa.eus | Proiektuaren koordinatzailea |

### GIZARTE ZIBILEKO ZER ERAKUNDETAN DA ARDURAKIDEA (hala badagokio)?

| Erakundearen izena | Erakundearen izena | Erakundearen izena | Erakundearen izena | Erakundearen izena |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

### INPLIKATUTA DAUDEN BESTE ERAGILE BATZUK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | *Arabako Foru Aldundia* | *Lexuri Ugarte* | *Lurralde Administrazioa* | *lugarte@araba.eus* | *Kolidergoa egitea* |
| | | | | | |
| 2 | *Bizkaiko Foru Aldundia* | *Leyre Vitorica* | *Lurralde Administrazioa* | *leyre.vitorica@bizkaia.eus* | *Partaidea* |
| | | Maria Presa | | *maria.presa@bizkaia.eus* | |
| 3 | *Bilboko Udala* | *Carlos Urgoiti* | *Toki Administrazioa* | *curgoiti@bilbao.eus* | *Partaidea* |
| | | Amagoia Ibarrondo | | *amagoia @bilbao.eus* | |
| 4 | *Gasteizko Udala* | *Amaia Mujika* | *Toki Administrazioa* | *amujika@vitoria-gasteiz.org* | *Partaidea* |
| | | | | | |
| 5 | *Barakaldoko Udala* | *Asier Rodriguez* | *Toki Administrazioa* | *arodriguez@barakaldo.eus* | *Partaidea* |
| | | Carol Zabaco | | *czabaco@barakaldo.eus* | |
| 6 | *Ermuako Udala* | *Montse Gutierrez* | *Toki Administrazioa* | *mgutierrez@ermua.net* | *Partaidea* |
| | | | | | |
| 7 | *Laudioko Udala* | *Ander Larrinaga* | *Toki Administrazioa* | *a.larrinaga@laudio.eus* | *Partaidea* |
| | | | | | |
| 8 | Laura Vizcaino | | Herritarra | gerleila@google.com | *Partaidea* |
| | | | | | |
| 9 | Ibatuz | Antxon Gallego | Empresa | agallego@ibatuz.com | *Partaidea* |
| | | | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **10** | Kultiba | Andoni Lastra | Empresa | alastra@kultiba.net | *Partaidea* |
| | | | | | |
| **11** | Arantzazu Otaolea | | Herritarra | maria.aranzazu.otaolea@bizkaia.eus | *Partaidea* |
| | | | | | |
| **12** | Sareen Sarea | Mikel Barturen | Elkartea | koordina@sareensarea.eu | *Partaidea* |
| | | | | | |

| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | |
|---|---|
| **ZERGATIK** | |
| ZER ERRONKARI ERANTZUTEN DIO | Herritarren kritika ohiko bat izan ohi da aurrekontu publikoen kudeaketa ulertzeko zailtasuna, eta ulermen falta horren ondorioz, askotan, ezjakintasunetik abiatuta, aurrekontuen kudeaketa bera zalantzan jartzen da. Ondorio hori larriagotu egiten da bizi ditugun krisi-egoeretan (finantza-krisia, COVID-19 krisia, etab.), eta horrek areagotu egiten du herritarren eta erakunde publikoen arteko mesfidantza eta distantzia.<br><br>Euskal erakunde publikoek beren aurrekontuak argitaratzen dituzte eta aurrekontu-ekitaldien inguruko kontuak ematen dituzte ondo finkatuta dauden legezko estandarren arabera, baina herritar gehienek ez dituzte estandar horiek ulertzen. Gainera, euskal erakunde-egituran eskumenak banatuta eta delegatuta dituzten administrazio publikoen hainbat maila egonik, are zailagoa egiten da herritarrentzat ulertzea nola kudeatzen diren beren zergekin finantzatzen diren eta zuzenean eragiten dieten baliabide publikoak.<br><br>Erronka, beraz, izango da aurrekontuen arloan gardentasunerako eta kontuak emateko tresna eraginkorra eta erabilerraza sortzea, herritarrek aurrekontu publikoak uler ditzaten eta, ondorioz, kudeaketa publikoa egoki baloratu eta politika publikoetan modu aktiboagoan parte hartu ahal izan dezaten. |
| ABIAPUNTUKO EGOERA | Gaur egun erakunde publiko bakoitzak bere aurrekontuak era ezberdinean argitaratuta dauzka; nahiz eta aurrekontuen barneko egitura legez erabat estandarizatua dagoen, aurrekontuak zabaltzeko orduan ez dago estandarrik, eta formatu eta kanal ezberdinetan aurki daitezke erakundearen arabera.<br><br>Askotan, gardentasun informazioa toki desberdinetan zabaltzen da: aurrekontuaren web, gardentasun ataria, aurrekontu irekiak, etab. Gainera, erakundeen aurrekontuak eta beren mendeko erakundeenak askotan ez daude uztartuta, eta hori dela eta herritarrek arazoak izaten dituzte baliabide publikoen kudeaketa bere osoan ulertzeko. |

<table>
<tr><td></td><td>Bestetik, aurrekontuen egitura estandarizatua eta oso teknikoa da eta aditua ez den pertsona batentzat ez da ulertzeko erraza. Hori dela eta, herritarrek askotan ez dute aurkitzen bilatzen ari diren informazioa, edo ez dute ulertzen aurrekontua bere osotasunean. Aurrekontuak era errazean ulertzeko formatu edo eskema berriak beharrezkoak dira, eta gainera era bateratuan, erakunde ezberdinetako aurrekontuak era berdinean azaltzea posible eginez.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ZERTARAKO</td></tr>
<tr><td>ZER LORTU NAHI DUGU? emaitzak eta helburu orokorrak</td><td>Tresna bat garatzea, herritarrek aurrekontu publikoak era errazean kontsultatu eta uler ditzaten.<br><br>• Aurrekontuak era bisualean eta errazean ulertzea posible egingo duena<br>• Tresna bakarraren bidez erakunde ezberdinen aurrekontuak ikusteko aukera emango duena, alderaketak egiteko<br>• Aurrekontuetako programa eta partida ezberdinak zertarako balio duten azalduko duena<br>• Biztanleko diru sarrerak eta gastuak zehaztuko dituena<br><br>Hau da, <u>aurrekontu irisgarriak</u> argitaratzea ahalbidetuko duen tresna bat.<br><br>Tresna plataforma bateratu batean jarriko da eskura, eta baita erakunde publiko ezberdinen atarietan ere. Erabilera librea izango du eta ez da ezer instalatu behar izango.<br><br>Aplikazioan urtero-urtero aurrekontuak igoko dira eta aurreko urteetako aurrekontuen historiko bat ere gordeko da.<br><br>Tresnak hizkuntza hizkera erraza erabiliko du eta bere diseinuan hizkuntza berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuko da, eta baita erakunde publiko partaideen euskara sustatzeko politikak betetzea ere.</td></tr>
<tr><td>BEHIN EZARRI OSTEAN, ZER ALDATUKO DA? espero diren emaitzek nola eta zer neurritan lagunduko dute erronkari erantzuten?</td><td>EAEko administrazioek (gobernu autonomikoak, foru aldundiek, tokiko erakundeek, legebiltzarrak, batzar nagusiek, etab.) beren web-orrietan kontu emateko plataformara esteka izango dute, herritarrek aurrekontuak ikus ahal ditzaten. Ekitaldi ekonomikoa ixtean, aurrekontuen exekuzio mailari buruzko informazioa ere jarriko da.<br><br>Era honetan, herritarrek tresna erraza izango dute era bateratuan euskal erakunde publikoetako aurrekontuak kontsultatu eta ulertu ahal izateko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ZERTAN EGIN NAHI DUGU EKARPENA?</td></tr>
<tr><td>ZER EKARPEN EGITEN DIO GOBERNU IREKIAREN IKUSPEGIARI?</td><td>Ekimen honek herritarrak ahalduntzen ditu, eta teknologia berrien indarra aprobetxatzen du, lege- eta exekuzio-erakundeak eraginkorragoak izan daitezen eta hobeto erantzun diezaioten herritarren eskariei.</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| | Ekimen honek herritar antolatuen eta antolatu gabeen lankidetza sustatzen du, gure herrialdeetan areagotu dadin gizakien aberastasuna, ongizatea eta duintasuna, eta mundua gero eta konektatuago egon dadin.<br><br>Ekimen honek erraztu egiten du estatu- eta autonomia-gobernuetako informazio-sistemen elkarreragingarritasuna; baita foru-gobernuetako eta toki-gobernuetakoa ere.<br><br>Ekimen honi esker, errazago entzungo zaie herritarrei, eta errazago sartu ahal izango da teknologietara, modu ekitatiboan eta merke.<br><br>Tresna bakarra da, EAEko administrazio guztiek erabiltzeko modukoa; oinarritzat hartzen ditu hala hizkera errazaren printzipioa nola erabilgarritasun- eta irisgarritasun-printzipioak.<br><br>Neurtzeko moduko konpromisoa da, inpaktua duena. Gizarte zibilarekin batera diseinatuko da (gizarte zibil antolatuarekin eta antolatu gabearekin). |
| ZER POLITIKARI ERAGITEN DIO? | Erakunde publikoen aurrekontuetako eta gardentasuneko politikei. |
| ZER SEKTORERI? | Batez ere sektore ekonomiko ezberdinei. |
| ZER OGP BALIOREKIN EGITEN DU BAT? | Gardentasunarekin eta kontu ematearekin. Herritarrek gai publikoetan gehiago parte hartzea bultzatu nahi badugu, beharrezkoa dugu hauei aurrekontuei buruzko informazio egokia zabaltzen, beraiek baloratu ahal dezaten kudeaketa publikoa.<br>Azken finean, bilatzen ari garena da herritarrak ahalduntzea eta mobilizatzea, teknologia berriek eskaintzen duten indarra baliatuz; hala, berdintasunez eta diskriminaziorik gabe parte hartu ahal izango dute politika publikoen diseinuan eta garapenean. |
| **ZEREKIN?** | |
| ZER BALIABIDE BEHAR DUGU? | 50.000 euroko aurrekontua aurreikusten da.<br>KONPROMISO-TALDEA, HERRIITARREN ETA ERAKUNDEEN IKUSPEGIA DUTEN ERAGILE ADITUEK OSATUA |
| ZER DAUKAGU? | - Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuaren aurrekontuan dagoen Gobernantza onari zuzendutako aurrekontu-programa. Hasierako aurrekontua: 50.000 euro, proiektuaren koordinazioa egiteko, baliabide teknologikoak bilatzeko eta kontu emateko tresna garatzeko erabiliko dena.<br>- Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan dagoen kontu emateari zuzendutako aurrekontu-programa. Hasierako aurrekontua: 12.000 euro.<br>- OGP Euskadi osatzen duten erakunde publikoen baliabide tekniko eta teknologikoak, bakoitzaren aurrekontuak kudeatzeko sistema kontu emateko tresnarekin txertatzeko erabiliko direnak. Hasierako aurrekontua: zehaztu gabea |

| EKINTZAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **MUGARRIA** | **ZER LORTUKO DA?**<br>***Produktua edo zerbitzua*** | **HASIERA-DATA** | **AMAIERA-DATA** | **ERAKUNDE ARDURADUNA** | **HARREMANETARAKO PERTSONA** |
| **1** | Konpromiso-taldea eratzea | 2021eko iraila | 2021eko urria | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **2** | Herritarren zailtasunen eta beharren azterketa | 2021eko urria | 2022eko martxoa | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **3** | Euskal erakundeen aurrekontu-arloko informazioaren komunikazioaren egungo egoeraren azterketa | 2022ko urtarrila | 2022ko ekaina | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **4** | Komunikatu beharreko edukien definizioa eta herritarrekin kontrastea | 2022eko uztaila | 2022ko urria | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **5** | Aurrekontua bistaratzeko web tresna diseinatzea eta inplementatzea. Herritarrekin erabilpen frogak | 2022ko azaroa | 2023ko apirila | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **6** | OGP Euskadiko erakundeetan ezartzea | 2023ko maiatza | 2023ko abendua | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **7** | Gainerako euskal erakundeek tresna erabil dezaten bultzatzeko hedapen-ekintzak. | 2024ko urtarrila | 2024ko azaroa | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |
| **8** | Herritarren artean zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak | 2024ko urtarrila | 2024ko azaroa | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **9** | Ebaluazio partaidetua | 2024ko azaroa | 2024ko abendua | Gipuzkoako Foru Aldundia-Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendaritza | Haritz Ugarte - Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zerbitzuburua |

| ZEHARKAKO ELEMENTUAK | |
|---|---|
| 2030 AGENDAREKIN BATERATUTA DAGO? ZER GJH-RI LAGUNTZEN DIO? NOLA? | **16. helburua. Bakea, justizia eta erakunde sendoak**<br><br>Gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarria lortzeko; denei erraztea justiziako sarbidea, eta, maila guztietan, erakunde eraginkor eta inklusiboak sortzea, kontuak ematen dituztenak.<br><br>• **16.6 ERAKUNDE ERAGINKORRAK ETA GARDENAK**<br><br>Maila guztietan, erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, kontuak ematen dituztenak.<br><br>• **16.7 HERRITARREK PARTE HARTZEA**<br><br>Maila guztietan bermatzea erabaki inklusiboak hartuko direla, partaidetzan oinarrituak eta premiei erantzuteko ordezkaritza dutenak.<br><br>• **16.10 INFORMAZIORAKO SARBIDEA ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK**<br><br>Bermatzea babestuko direla informaziorako irispide publikoa eta oinarrizko askatasunak, lege nazionalen eta nazioarteko itunen arabera. |
| NOLA JORRATUKO DA GENERO-IKUSPEGIA? *Diseinu-, hedapen- eta ebaluazio-fasea* | Diseinuaren bidez, genero-ikuspegia sartuko da (irismena); horretarako, , gaiari buruzko ikuspegia duten pertsonak sartuko dira konpromiso-taldean.<br><br>Tresnan, funtzionalitateak garatuko dira, genero-diskriminazioei buruzko hausnarketa bultzatzeko eta ekintza positiboak txertatzeko, desberdintasunak zuzenduko dituztenak; hala, ikusgarriak izan ahal izango dira, eta erraz eskuratzeko modukoak.<br><br>Tresna hedatzean, genero-ikuspegia txertatzen duten edo generoagatiko diskriminazioak zuzentzen edo ekintza positiboak sustatzen zuzenean laguntzen duten ekimenekin parte hartu nahi duten kolektiboen sarbidea zainduz.<br><br>Ebaluazio parte-hartzailean genero-ikuspegia txertatuz. |